



**1/2017 JARRAIBIDEA**

**NORK: OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIAK**

**NORI: ZERBITZU-ERAKUNDE GUZTIEI. LANGILE GUZTIEI**

**GAIA: PAZIENTEEN DATU PERTSONALAK BABESTEKO ARAUBIDEA GRADUATU AURREKO PRESTAKUNTZA-PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN OSASUN-ZIENTZIETAKO IKASLE, OSASUN-ZIENTZIETAKO EGOILIAR ETA IKERTZAILEENTZAT.**

Estatuko Osasun Sistemaren Giza Baliabideetako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 26ko bileran, datu pertsonalak babesteko araubideari buruzko protokoloa onartu zuen osasun-zentroetan prestakuntza-praktikak egiten dituzten Osasun Zientzietako ikasle eta Osasun Zientzietako egoiliarrentzat.

Protokolo horren 11. klausulak jasotzen duenez, osasun-sailek urtebeteko epea dute, aipatutako agiria argitaratzen denetik aurrera zenbatuta, bertan jasotako aurreikuspenak ezarri eta betetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen eskumen-banaketarekin bat etorritz, Osakidetza zuzendari nagusia arduratzen da protokolo horretan jasotako aurreikuspenak erakunde publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztiei helarazteaz.

Aurrekoa betez, zerbitzu-erakundeei honako hau jakinarazi behar diegu:

### **JARRAIBIDEA**

Osasunari buruzko datuak babestea oinarrizko eskubidea da, eta lerrun handieneko lege-arauen bidez ezarri da, bai Erkidegoan –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren bidez (aurreko 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du)– bai Estatuan honako hauen bidez: Konstituzioa, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Jabetza Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiena eta Datuen Babeserako



Euskal Agentzia sortzen duena, bai eta erregelamendu-mailako beste arau batzuk ere. Gure zuzenbidezko estatuan intimitatea eta datu pertsonalak babesteko eskubideak zer garrantzi duen uzten du agerian horrek; datu horiek bereziki esanguratsuak eta garrantzitsuak dira osasunaren esparruan, gainera, herritarrak paziente gisa bere intimitateari buruzko era guztietako datuak eman behar baitizkie osasun-informazio sistemai.

Era berean, lege-lerruneko osasun-xedapen batzuek adierazten dute osasun-sistema erabilgarri egon behar dela ezinbestean osasun-zientziekin lotutako profesionalen irakaskuntza/prestakuntza graduatu, espezializatu eta ikertzailea garatzeko; erabilgarritasun horri esker, hain zuzen, gure osasun-sistemaren kalitate-maila handiak lortu ahal izateko funtsezko alderdietako bat profesionalen prestakuntza bikainean oinarritu ahal izan da.

Irakasteko akreditatuta dauden hezkuntza eta osasuneko erakundeen izaera hedakorra dela eta, azken urteotan nabarmen handitu da osasun-erakundeetan praktiketan dauden edo prestakuntza egiten duten Osasun Zientziekin lotutako ikasleen eta egoiliarren kopurua. Horrelakoak, ondorioz, pazientearekin harremanetan egon daitezke eta nahiko erraz eskura ditzakete arlo horretan gehitutako osasunari buruzko datuak –eboluzio teknologikoak eta globalizazioak eragin handia dute bertan–.

Egoera hori dela eta, hainbat erakundek, herriaren defendatzaileak eta Estatuko Osasun Sistemako Giza Baliabideen Batzordeak adibidez (osasun-administrazio guztiak daude ordezkaturak bigarrenean), beharrezkotzat jo dute jarraibide honetan jasotako jarduteko irizpide komunak onartzea. Ikasleek, egoiliarrek eta ikertzaileek, hala badagokio, pazientearen datuen konfidentziasunerako eskubidea errespetatu behar dutela ezarri dute horien bitartez.

Azaldutakoagatik, honako jarraibide hau honela onartzen da:

### **1. Jarraibidearen xedea.**

Pazientearen duintasun eta intimitaterako eskubidea bermatzeko jarduteko oinarritzko arauak ezartzea du xedetzat jarraibide honek, honako egoera hauetan: Osasun Zientziekin lotutako tituluetako ikasleen aurrean (ikasleen kolektiboa) arreta ematen diotenean, eta Osasun Zientzietako

prestakuntza espezializatua egiten ari diren profesionalak (prestakuntzako egoiliarren kolektiboa) arreta ematen diotenean.

Halaber, jarraibidearen artikuluetan, betebeharrak jakin batzuk ezartzen dira, ikertzaileek bete beharko dituztenak.

## **2. Aplikazio-eremua.**

Jarraibide honen jardun-arauak Osakidetzako osasun-zentro guztietan aplikatuko dira, bai eta osasun-arloko zentro eta erakunde pribatuetan ere, edota, zeharkako kudeaketako edozein formularen bidez, laguntzan, irakaskuntzan edo ikerketan Osakidetzarekin elkarlanean aritzen diren guztietan.

## **3. Lege-esparrua.**

3.1 Konstituzioaren 18.1 artikulua oinarritzko eskubide hau aitortzen du:

«Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da».

3.2 Gainera, Konstituzioaren 18.4 artikulua herritar orori aitortzen dio bere datuen kontrol, erabilera eta helbururako eskubidea modu honetan:

«Legeak informatikaren erabilera mugatuko du (datuen tratamendu automatizatua), herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko».

3.3 Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra (OLO). Lege horren 10. artikulua, erabiltzaileen eskubideak arautzean, honako hauek berariaz aipatzen ditu: intimitatea errespetatzeko eskubidea, prozesuarekin lotutako informazio guztiaren konfidentziasunerako eskubidea eta interesdunak, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak aplikatzeari dagokionez, baimena emateko eskubidea. Eskubide horiek, nolana ere, bateragarriak izan behar dute 104. artikuluan jasotako aurreikuspenekin; artikulua horrek xedatzen duenez, osasun-sistemako laguntza-egitura osoa erabilgarri egongo da profesionalen graduatu aurreko eta graduatu osteko irakaskuntzarako zein etengabeko irakaskuntzarako.

3.4 Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak pertsonen intimitatearekiko errespetuari eman beharreko garrantzia ezartzen du 8a), 10 eta 36.2b) hirugarren artikuluetan.

Halaber, Legearen 31. artikuluan, irakaskuntzari eman beharreko garrantzia xedatzen da, Euskadiko Osasun Sistemaren irakaskuntza-egituren eta laguntza-egituren arteko lankidetzaz bidez egokiak ezarriz.

Pertsonen intimitatearekiko errespetua jada arautu zen Zuzendaritza Nagusi honen uztailaren 24ko 8/2014 Jarraibidearen bidez, eta irakaskuntzaren alderdia, pazientearen intimitatearekin lotuta, Jarraibide honen bidez arautuko da.

3.5 Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (DPBO) eta hura garatzeko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretu bidez onartutako erregelamendua osasun-arloaren berezkoak ez diren xedapen orokorrak dira, eta interpretazio harmonikoa behar dute ondorengo zenbakietan aipatutako araudiarekin.

Lege honen 7.3 artikulua haxe xedatzen du: *«arraza-jatorriari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datu pertsonalak (bereziki babestuta egongo dira) interes orokorreko arrazoiak tarteko lege batek hala xedatzen duenean edo eragindako pertsonak berariaz onartzen duenean baino ezin izango dira batu, tratatu eta beste batzuei laga».*

DBLOK, 7.6 artikuluan, haxe dio: *«7.3 artikulua aipatutako datuak tratatu ahal izango dira datuak tratatzea beharrezkoa denean prebentzio eta diagnostiko medikorako, asistentzia sanitarioa edo tratamendu medikoak emateko edo zerbitzu sanitarioak kudeatzeko, betiere datuen tratamendu hori sekretu profesionalera atxikitako profesional sanitario batek egiten badu edo sekretu-betebehar antzekoren bat duen beste pertsonaren batek»* eta osasunari buruzko datuak tratatu ere egin ahal izango dira, *«datuak tratatzea beharrezkoa denean eraginpekoaren edo beste inoren bizi-interesa babesteko, eraginpekoa fisikoki edo juridikoki ezgaitua badago baimena emateko».*

Era berean, DBLOko 44. artikulua arau-hauste arin, astun edo oso astuntzat hartzen ditu sekretu-betebeharraren edo datu pertsonalak desegoki tratatzearen ondoriozko ez-betetzeak.

3.6 41/2002 Legeak, azaroaren 14koak, pazienteen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituenak, 7.1 artikuluan haxe ezartzen du:

*«Pertsona guztien eskubidea da osasunari buruzko datuen konfidentzialtasuna bermatua izatea eta legeak babesten duen aurretiko baimenik gabe ezinezkoa izatea datu horiek eskuratzea».*

Lege hori osasun-sektorearen berezkoa da; prestakuntza egiten ari diren langile guztiek erraz eskuratzeko eta ezagutzeko izan behar du, beraz.

3.7 Zigor Kodearen 199. artikulua, sekretu profesionalaren betebeharra aipatzen duenak, zigortzen du «norbaitek, bere ogibide edo lan-harremanen ondorioz, inoren sekretuak badakizki, eta horiek ezagutarazten baditu».

3.8 Zigor Kodearen 197. artikuluko 1 eta 2 zenbakiek zigortzen dute nola «beste baten sekretuak agerrarazten dituen edo beste horren intimitatea urratzen duena berorren adostasunik gabe» (grabazioak, entzute, soinu eta irudien erreproduzioak barne) hala «baimenik gabe, beste baten datu erreserbatuak harrapatzen dituen, horiek edozein erregistro publiko edo pribatutan egonik».

3.9 44/2003 Legeak, azaroaren 21ekoak, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoak, II. tituluan osasunaren esparruko graduatu aurreko prestakuntza zein espezializatua aipatzen ditu, eta haien funtsezko jarraibideak arautzen ditu; horrelakoak ondoren garatu dituzte 3.8 eta 3.9 zenbakietan aipatutako xedapenek eta 639/2014 Errege Dekretuak, uztailaren 25ekoak, ardaztasuna, ardatz berean beste espezialitate bat egitea eta gaikuntza espezifikorako esparruak arautzen dituenak, prestakuntza plazak lortzeko urtero egiten diren probei aplikatzeko arauak, bai eta Osasun Zientzietan espezializatutako osasun prestakuntzaren sistemaren beste alderdiak ere ezarri, eta espezialisten hainbat titulu sortu eta aldatzen dituenak.

3.10 183/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 8koak, Osasun Zientzietako espezialitateak zehazten eta sailkatzen dituen eta prestakuntza sanitario espezializatuko alderdi jakin batzuk garatzen dituenak, zera ezartzen du: *«Egoitza bidezko prestakuntza-sistemak egiten ari diren espezialitatean pixkanaka erantzukizunak beren gain hartzea ekarriko du, eta gainbegiratze-maila murrizten joatea, prestakuntza-programan aurreikusitako gaitasunak eskuratu ahala, harik eta espezialistaren osasun-lanbidean modu autonomoan aritzeko berezko erantzukizun-maila lortzen duten arte».*

3.11 1146/2006 Errege Dekretuak, urriaren 6koak, Osasun Zientzietako espezialistak prestatzeko egoiliarren lan-harreman berezia arautzen duenak, egoiliarren betebeharrak arautzean, ezartzen du betebeharrak hauek dituztela: *«Zerbitzuak zuzenean ematea eta dagokion prestakuntza-programak eta zentroaren antolamendu funtzionalak ezarritako laguntza-zereginak gauzatzea, espezialitateari buruzko lanbide-gaitasuna eskuratzeaz gain, osasun-erakundearen berezko xedeak ere laguntzeko».*

3.12 Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua honakoa xedatzen du: *«Adingabeekin ohiko kontaktua duten lanbide, ofizio edo jardueretan sartzeko eta horiek betetzeko eskakizuna izango da sexu-askatasunaren eta sexu-identitatearen kontrako delituen batengatik –sexu-erasoa eta sexu-abusua, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien trafikoa sartzeko delitu horietan–, sententzia irmoaren bidez zigorrak jaso ez izana. Horrenbestez, lanbide, ogibide edo jarduera horietan aritu nahi duten guztiak ziurtatu beharko dute betekizun hori, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz».*

3.13 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa; horren 7. eta 43.2 artikuluek berariaz aipatzen dute duintasun eta intimitate pertsonalarekiko errespetua, bai eta informazio-sistemek Osasun Publikoaren arloan emandako datuei buruz sekretua gordetzeko obligazioa ere.

3.14 38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa eta, hala dagokionean, besteak beste, Biomedikuntzako Ikerkuntzari buruzko 14/2007 Legearen, Lagundutako Giza Ugalketako Teknikari buruzko 14/2006 Legearen edo Kirol arloan osasuna babesteari eta dopinaren kontrako borrokari buruzko 7/2006 Lege Organikoaren beste xedapen batzuen aurreikuspenak ere ezagutu eta bete beharko dituzte prestakuntza jasotzen ari den langileak, eta horrelakoak bete ditzaten erraztea dagokie irakaskuntzaren tutore eta arduradunei, prestakuntza hartzen ari den pertsonala harremanetan dagoen zentroko profesionalen gainbegiratzeko betebeharrak orokorra alde batera utzi gabe.

#### **4. Pazientearen tratu duinerako eskubidea eta prestakuntza-egoerako langileen jarduna gainbegiratzea.**

4.1 Osasun-arretako prozesuetan, pertsonen tratu duina eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea dute uneoro eta edozein egoeratan.

Laguntza-prozesuren batean nolabait parte hartzen duten ikasleek, egoiliarrek eta osasun arloko eta hortik kanpoko beste kolektibo profesionaletako kideek pazienteen intimitatea eta duintasuna errespetatu beharko dituzte, oro har onartuta dauden adeitasun-arauen arabera jarrerekin eta hizkuntza egokia erabiliz.

4.2 Prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen espezialitateko programa ofizialen edo ikasketa-planen eduki etikoekin bat datorren jokabidea izan dezaten bultzatuko da, eta osasun-lanbideen deontologia-kodeen arabera izatea; halaber, Laguntza Etika/Ikerketako Batzordeen jardura ere ezagutu beharko dute, prestakuntza-egoeran dauden pertsonen erabakiak balio etikoen arabera hartzeko trebetasunak eskura ditzaten.

4.3 Prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarren eta ikasleen kolektiboetako kideek, osasun-zentroetan txandatzeak edo praktikak egiten badituzte, prestakuntza espezializatuko tutore bat edo, tutore kliniko bat, lotutako plaza duen irakasle bat, edo Osasun Zientzietako irakasle elkartu bat izango dute, hurrenez hurren, eta praktika klinikoak egiten dituzten osasun-zentroko langilea izango da hori. Aipatutako irakasle-arduradun horiek erreferentziako pertsonak izango dira, eta horiengana jo ahal izango dute zentroko beste profesional batzuek edo zentroz kanpokoek prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarren eta ikasleen jarduerari dagokienez.

4.4 Edozein urtetako prestakuntza-egoerako pertsonen irakasle-/tutore-arduradunek esandakoaren arabera jardungo dute eta, horrelakorik ezean, laguntza-unitateko espezialisten jarraibideak bete beharko dituzte uneoro. Nolanahi ere, laguntza ematen amaitutakoan, laguntza-praktikaren erabaki eta gainontzeko alderdiez irizpenak, galderak eta kritikak ere egin ahal izango dituzte, kritika mesedegarriko arauen barruan, eta datuak babesteko araudia betez betiere.

4.5 Osasun-zentroak, ahal den neurrian, paziente estandarizatuak/simulatuak/manikiak edo egoera klinikoak simulatzeko

bestelako teknikak erabil ditzaten lagunduko du, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen gaitasun klinikoak eta trebetasun teknikoak zein talde-lanekoak eskuratu ahal izan ditzaten behar den egiazko harremana pazientearekin izan aurretik.

Ikastetxeekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenetan aurreikusiko da, orobat, haiek ere egin beharko dituztela simulatutako jarduerak beren zentroetan praktikak osasun-zentroan hasi aurretik.

4.6 Osasun-zentroetako zuzendaritzari dagokio prestakuntza jasotzen ari diren ikasleak eta egoiliarrek zentroaren laguntza-dinamikaren barruan erabat sartzen direla zaintzea, eta haren jarduna zuzentzen duen araudia onartzen eta betetzen dutela zaintzea, bereziki haien uniformetasun eta identifikazioari, jarduteko printzipio etikoak eta oinarrizko arauak betetzeari eta Jarraibide honetan jasotako berariazko arauak betetzeari dagokienez.

4.7 Ikasleek eta egoiliarrek zentroaren laguntza-dinamikaren barruan sartu beharko dute haren jarduna zuzentzen duen araudia betez, bereziki beren uniformetasun eta identifikazioari, jarduteko printzipio etikoak eta oinarrizko arauak betetzeari eta Jarraibide honetan jasotako berariazko arauak betetzeari dagokienez.

4.8 Esku hartzen duten zerbitzu guztiek datu pertsonalak babesteko neurrien berri eman beharko diete Osasun Zientzietako ikasleei eta egoiliarrei gailu elektronikoak erabiltzeko orduan (eramangarriak, USB memoriak, etab.). Informazio hori ezin izango dute inola ere partekatu osasun-zentroetako segurtasun-sistemei lotuta ez dauden informazio-sistemak eta/edo tresna informatikoak/sare sozialak erabiliz.

## **5. Laguntza-prozesuetan Osasun Zientzietako tituluak IKASLEEN kolektiboko kideak daudenean nola jardun jakiteko jarraibideak.**

5.1 Hauek dira kolektiboko kideak:

✓ Honako hauek osasun-lanbide titulatu eta arautuak egiteko gaitasuna ematen duten tituluen unibertsitate-ikasleak: Osasun Zientziak, Medikuntza, Farmazia, Odontologia, Erizaintza, Fisioterapia, Terapia Okupazionala, Podologia, Optika-optometria, Logopedia, Dietista Nutrizionistak, Osasun Psikologia Orokorra.

- ✓ Master, doktorego eta berezko tituluetakoa unibertsitate-ikasleak edo osasun-lanbideei lotutako ikertzaileak.
- ✓ Osasunaren arloko lanbide-heziketako ikasleak, erdi-mailako teknikariak zein goi-mailako teknikariak.
- ✓ Unibertsitateko bestelako tituluetakoa edo lanbide-heziketako ikasleak, osasun-zentroetan praktikaldiak egiten badituzte.

5.2 Laguntza-prozesuan prestakuntza jasotzen ari diren ikasleak daudela ezagutzeko eskubidea dute pazienteek.

Osasun Zentroko Zuzendaritzak (eta ez jatorrizko unibertsitate, ikastetxe edo prestakuntza-zentroak) identifikazio-txartel bat emango die, uniformearen ageriko tokian jarri beharrekoa; txartel horretan ikaslearen datu pertsonalak, argazkia eta 5.1 atalean aipatutakoetatik dagokion taldearen berariazko erreferentzia jasoko dira, zentroko erabiltzaileek eta langileek ezagutu ahal izan dezaten.

Zentroan praktikaldia amaituta, identifikazio-txartel hori zentroko langile-zerbitzuei itzuli beharko diete.

5.3 Laguntza-egintza hasi aurretik, haren langile arduradunak (unitateko espezialista, tutorea edo tutoreak baimendutako egoiliarra) pazienteari edo haren ordezkariari jakinaraziko dio ikasleak daudela, eta ahozko baimena eskatuko dio jarduketa klinikoak ikus ditzaten; Historia Klinikoan jasoko da hori, halaber.

DBLOren 7.3 artikuluan PAOLen 8.1 artikuluekin lotuta ezarritakoarekin bat etorritik, pazienteak ez badu baimenik ematen, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonak ezin izango dute laguntza-arretarako prozesua ikusi.

Baldin eta pazienteak baimena ematen badu egintza kliniko gauzatu bitartean ikasleak bertan egon daitezen, baimena berriz ere eskatuko diete miaketa fisiko, prozedura kliniko edo interbentzioren bat prestakuntza-xedez egitea egoki iritziz gero.

Aurrekoa gorabehera, pazientearen baimen orokorra ere eskatu ahal izango dute aldi jakin baterako, osasun-zentroan egotea aurreikusitako denboraren arabera zehaztuta betiere. Aldi hori ezin izango da 15 egunekoa baino luzeagoa izan.

Kolektiboko pertsonak egotea mugatzeko aukera egongo da, bereziki dagokion osasun-langilearen ustez hori desegokia bada pazientearen egoera kliniko, emozional edo sozialagatik.

Ikasleak egotea eta horrelakoek miaketak, interbentzioak edo prozedura klinikoak egitea baimentzeko orduan, ordezkari bidez eman ahal izango dute baimena, familia direlako edo izatez pazientearekin lotutako pertsonen edo legeko ordezkarien bitartez, PAOLen 9.3 artikuluan aurreikusitako honako kasu hauetan:

a) Laguntzaz arduratzen den medikuaren ustez pazienteak ez denean gai erabakiak hartzeko, edo haren egoera fisiko edo psikikoak ez dionean uzten bere egoeraz arduratzen.

b) Pazienteak gaitasuna judizialki aldatuta duenean eta epaian hala jasota dagoenean.

c) Paziente adingabea ez denean gai ez intelektualki eta ez emozionalki ulertzeko interbentzioak zer ekarriko duen. Kasu honetan, adostasuna adingabearen legeko ordezkariak emango du, bere iritzia entzun ondoren, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Adingabe emantzipatuak edo 16 urtetik gorakoak badira eta aurreko zenbakiko b) eta c) kasuetan ez badaude, ezin da baimena eman ordezkariaren arabera.

5.4 Uneoro gainbegiratuta egongo dira kolektiboko kideak, eta ezin izango dute jo ez pazientearengana ezta hari buruzko informazio klinikora ere, prestakuntzaz arduratzen den laguntza-zentroko langileek zuzenean gainbegiratu gabe, betiere Osasunari buruzko Lege Orokorraren 104. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ekainaren 28ko 1558/1986 Errege Dekretuan, Unibertsitateen eta Osasun-instituzioen arteko hitzarmenen erregimenaren oinarri orokorrak zehaztutakoan, xedatutakoarekin lotuta, eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko hitzarmenetan eta bestelako autonomia-araudietan ezarritakoaren arabera.

5.5 Pazienteak baimendutako kasu berezietan izan ezik, haren aurrean gauzatutako egintza klinikoetan ez dira hiru ikasle baino gehiago egongo paziente bakoitzeko; dena dela, beste batzuek parte hartu ahal izango dute beste gela batean jarritako pantailen bidez –baimena emanda–. Halaber, talde ezberdinekin errepikatuzeko sekuentzia arrazoizko denboretan planifikatuko da, pazientearentzat gogaikarria edo larderiazkoa izan ez dadin.

Pazientearen aurrean prestakuntza jasotzen ari diren bost pertsona egongo dira gehienez, 6.5 atalean aipatutako egoiliarrek ere barne hartuta.

## 6. Laguntza-prozesuetan Osasun Zientzietako prestakuntza jasotzen ari diren EGOILIARRAK daudenean nola jardun jakiteko jarraibideak.

6.1 Prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarrek laguntza-prozesuan parte hartzen dutela ezagutzeko eskubidea dute pazienteek. Horregatik, osasun-zentroaren zuzendaritzak identifikazio-txartel bana emango die; izen-abizenak eta argazkia jasotzeaz gain, honako egoera batean daudela adieraziko du berariaz:

✓ Otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotako Osasun Zientzietako espezialitatearen bateko egoiliarra, jatorrizko titulua (medikuntza, farmazia, erizaintza, psikologia, biologia, kimika...), espezialitatea eta egiten ari den egoitza-urtea zehaztuta.

✓ Beste osasun-zentro batzuetatik etorritako txandakako egoiliarrak (otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren 21. artikulua).

✓ Baimendutako prestakuntza-egonaldian dauden atzerriko osasun-profesionalak (otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren 30. artikulua).

✓ Erkidegoko tituluak aitortzeko prozeduretan zehaztutako praktiketako jardun profesionaleko aldian dauden osasun-profesionalak, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan araututakoaren babesean –horren bidez sartzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/36/EE Europako zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora–.

✓ Praktiketako jardun profesionaleko aldian edo prestakuntzako aldi osagarrian dauden osasun-profesionalak, hori apirilaren 16ko 459/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren babesean zehaztuta (dekretu horrek Osasun Zientzietako espezialisten atzerriko tituluak, Europar Batasuneko kide ez diren estatuetan lortutakoak, lanbidean aritzeko nahikotzat jotzeko baldintzak arautzen ditu).

6.2 Prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarrek agerian eraman beharko dute zentroko zuzendaritzak emandako txartela, erabiltzaileek eta zentroko gainerako langileek ezagutu ahal izan ditzaten.

Osasun-instalazioetan praktikaldia amaituta, identifikazio-txartel hori zentroko langile-zerbitzuei itzuli beharko diete.

6.3 Otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrez aurre gainbegiratu beharko dituzte lehen urteko egoiliarak; horrenbestez, osasun-zentroek bermatu beharko dute antolamendu-baldintza nahikoak dituztela laguntza-unitateko espezialistek lehen urteko egoiliarren jarduketak gainbegiratu/ikuskatu ahal izateko.

6.4 Prestakuntzako bigarren urtetik aurrera, egoiliarrek zuzenean jo ahal izango dute pazientearengana pixkanaka, tutorearen jarraibideen arabera betiere; laguntza-unitateko espezialistek emango diete jarraibide horien berri, halaber.

Horri dagokionez, prestakuntzarako akreditatuta dauden laguntza-zerbitzuak eta/edo -unitateak gainbegiratzeko protokoloetan, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen dagokienez nola jardun jakiteko jarraibideak ere jasoko dira; nolahi ere, egoiliarrek jarduketa jakin bat gauzatzeko gaitasunik ez duela iritziz gero, zuhurtasun-printzipioa lehenetsiko da beti.

Egoiliarren sarbide-aukerak mugatu ahal izango dira gaixo terminalen laguntza arduratzen den sendagileak uste badu hobe dela pazientearekin harreman pribatua izatea.

6.5 Pazienteak baimendutako kasu berezietan izan ezik, eta haren intimitatea zaintzearen, pazientearen aurrean gauzatutako egintza klinikoetan ez dira hiru egoiliar baino gehiago egongo paziente bakoitzeko; dena dela, beste batzuek parte hartu ahal izango dute beste gela batean jarritako pantailen bidez –baimena emanda–. Halaber, talde ezberdinekin errepikatuzeko sekuentzia arrazoizko denboretan planifikatuko da, pazientearentzat gogaikarria edo larderiazkoa izan ez dadin.

Pazientearen aurrean prestakuntza jasotzen ari diren bost pertsona egongo dira gehienez, 5.5 atalean aipatutako egoiliarrek ere barne hartuta.

6.6 Baldin eta ezinbesteko larrialdiagatik egoiliar batek esku hartu behar badu eta une horretan gainbegiratzeko aukerarik ez badago (aurrez aurre edo ez, egoitza-urtearen eta kasuan kasuko inguruabarren arabera), interbentzio horren berri jaso beharko du historia klinikoan, eta jardun hori

jakinarazi beharko die tutoreei zein larrialdia gertatu den laguntza-unitateko espezialistei.

## 7. Datu klinikoetara sartzeko bermea.

### 7.1 Osakidetzako pazientearen historia klinikora sartzea laguntza-xedeetarako.

7.1.1 PAOLen 15.2 artikulua xedatzen du historia klinikoaren helburua hauxe dela: «osasan-laguntza erraztea mediku-irizpidearen arabera osan-egoera egiaz eta modu eguneratuan ezagutu ahal izateko datu guztien berri jasota».

Aipatutako legeak, 16.1 artikuluan ezartzen du pazientearen diagnostikoa edo tratamendua egiten duten laguntza-arloko profesionalak haren historia klinikorako sarbidea dutela pazienteari laguntza egokia emateko funtsezko tresnatzat, pazienteak horretarako baimena eman beharrik gabe.

Hortaz, edozein urtetako egoiliarrek, laguntza-arloko pertsonak eta zentroko langileak izanik, eskubidea dute unean-unean egiten dituzten laguntza-jarduketetan nahasitako pazienteen historia klinikora sartzeko. Historia klinikoan laguntza-egintzak ez begiratu edo betetzeak ondorioak izan ditzake pazienteen segurtasunean, eta legezko ondorioak ere izan ditzake praxi kliniko-asistentzial txarratik.

7.1.2 Osasan-zentroko arduradunek, historia klinikoaren artxiboa kudeaketaz arduratzen den administrazio-zerbitzuaren bitartez, egoiliarren kolektiboko kideei erraztasunak emango dizkiete historia klinikoan sartu ahal izan daitezen, autentifikatzeko mekanismo baten bidez (oro har, identifikazio-txartel baten eta sinadura elektronikoa aitortuaren bidez).

PAOLen 16.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, historia klinikora sartu izana eta haren erabilera jasota gelditzen dela bermatu beharko du erabilitako prozedurak.

Salbuespenez, osasan-zentroetako arduradunek mugak jarri ahal izango dituzte osasan-profesionalak historia klinikoan sar daitezen, arreta-testuinguruaren eta historia klinikoan sartzeko osasan-zentroak duen politikaren arabera (esate baterako, genero-indarkeriako kasuei dagokienez, prentsa-politika, etab.), betiere muga horiek, DBLOren 76. artikuluan PAOLen 16. artikuluekin lotuta ezarritakoarekin bat etorriz, laguntzari, prebentzioari eta

diagnostikoari kalterik egiten ez badiete, eta eragindako pertsonaren bizi-interesa zaintzea ez badu eragozten.

Nolanahi ere, aldi baterakoak izango dira sartzeko baimenak, eta prestakuntza-aldiarekin batera amaituko dira; osasun-zentroak baja emango dio orduan egoiliarri historia klinikoan sartzeko aukera ematen duen tresnan.

7.1.3 Osasun-datuen intimitate eta konfidentziasunarekiko errespetua bermatzearren, PAOLen 16.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera baino ezin izango dira sartu historia klinikoan ikasleak, eta, anonimotasuna bermatzearren, datu klinikoak eta pertsonalak bereizi egingo dira aldez aurretik.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakotik salbuetsita gelditzen dira pazienteak datuak ez aldatzeko edo ez bereizteko baimena berariaz emandako kasuak; halakoetan, historia klinikoari erantsiko zaio baimen hori.

## 7.2 Osakidetza pazientearen historia klinikora sartzea osasun publikoko epidemiologiako, ikerketako eta irakaskuntzako xedearekin.

7.2.1 PAOLEk 16.3 artikuluan ezartzen duenez, historia klinikoa xede judizialez, epidemiologikoz, osasun publikoko helburuz edota ikertzeko edo irakasteko xedez eskuratzearen ondorioz, pazientearen nortasun-datuak eta izaera kliniko-asistentziala dutenak bereiz eduki beharra dago, era horretan, oro har, anonimotasuna bermatuta egon dadin, betiere pazienteak berak horrelakoak ez bereizteko baimena eman ez badu.

Datuak bereizi beharragatik banatu egin behar dira zientziaren ikuspegitik baliagarriak diren datuak (kliniko-asistentzialak, gure kasuan) eta titularra identifikatzeko aukera ematen dutenak (historia klinikoaren zenbakia, OTI, NAN, etab.). Datuak bereizi beharko ditu horretarako eskumena izanik lanbide-sekretuari lotuta dagoenak edo antzeko sekretu-betebeharririk duen beste pertsona batek.

Irakaskuntzaren eremuan, datu pertsonalak bereizita dituzten historia klinikoetan edo irakaskuntzaren arduradunak simulatutako historia klinikoetan sartzeko aukera izango dute ikasleek, horrelakoetan oinarritutako ikaskuntza osasun-datuen intimitatea eta konfidentziasuna errespetatuz egiten dela bermatzearren.

7.2.2 Zentroaren zuzendaritzak historia klinikoaren erregistrora sartzea baimenduko du. Erregistroaren arduradunak bideratuko du baimen hori,

hartarako tutorearen edo ikerketa/master/berezko titulu/doktoregoaren arduradunen aurretiazko txosten arrazoitua eskatuko du, eta Asistentziaren/Ikerketaren Etikako Komitearen irizpena ere jaso beharko du aldez aurretik. Sarbidea baimentzen duten xede zehatzaren arabera denbora-muga izango du baimen horrek.

7.2.3. Ikerketaren xedeekin lotuta dauden historia klinikoaren datuak baino ezin izango dituzte erabili, eta ezin izango dute jakinarazi dena delako azterketa/ikerketan parte hartzen duten pazienteak identifikatzeko aukera ematen duen ezaugarri, gertaera edo inguruabarrik.

Beharrezkoa baldin bada irudi medikoak edo ikus-entzunezko beste edozein euskarrikoak argitaratu edo erakustea, eta horietan pazientearen nortasuna ondorioztatu ahal izateko moduko gorputz-atalak badaude, haren idatzizko baimena eskatu beharko dute.

7.2.4. Ikerketa biomedikoaren eta saiakuntza klinikoaren arloko ikertzaileen jardura bat etorriko da honako hauetan xedatutakoarekin: 14/2007 Legea, uztailaren 3koa, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1090/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, medikamentuekin eginiko saiakuntza klinikoak, Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoak eta Azterketa Klinikoaren Espainiako Erregistroa arautzen dituenak, eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko berariazko araudia.

7.2.5. Giza erabilerarako medikamentuen bidezko behaketa-azterketak abenduaren 16ko SAS/3470/2009 Aginduan xedatutakoaren arabera egingo dira; giza erabilerarako medikamentuen behaketa-azterlan baimendunei buruzko jarraibideak argitaratzen ditu aipatu aginduak.

### 7.3 Hirugarrenak Osakidetzako pazientearen historia klinikora sartzeara.

7.3.1. Pazienteek edo tartean dauden hirugarrenek (senideak, legezko ordezkariak...), PAOLen 18. artikuluan aitortutako sartzeko eskubidearen babesean, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen historia klinikoan sartzeko egiten dizkieten eskaerak berehala helaraziko zaizkie tutoreari edo laguntza-unitateko espezialistei, zentro bakoitzak ezarritakoaren arabera bideratu ditzaten.

## 7.4 Espainiako Osasun Sistemako Historia Kliniko Digitalean sartzea (EOSHKD)

7.4.1. Espainiako Osasun Sistemako Historia Kliniko Digitalaren (EOSHKD) sistemak Espainiako Osasun Sistemako osasun-zerbitzu guztietan sortutako agiri kliniko jakin batzuetan sartzeko aukera ematen du, Estatuan barrenako bidaietan herritarrek osasun-arreta behar dutenean horrelakoak kontsultatu ahal izatea bermatuta egon dadin.

7.4.2. Laguntza-xedez baino ez dira sartuko agiri horietan, eta Osakidetzak uztailaren 24ko 8/2014 Jarraibidean aurretiaz baimenduta egonik laguntza-eginkizunak dituzten pertsonak izango dute sisteman sartzeko aukera.

7.4.3 Osasun Zientziekin lotutako tituluetakoa ikasleek ez dute sartzeko aukerarik izango, hortaz.

## 7.5 Kopia:

Historia klinikoan, 7.1.1 eta 7.1.3 ataletan aurreikusitakoaren arabera, unean-unean sartzea alde batera utzi gabe, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonak, egoiliarak edo ikasleak izan, ezin izango dute historia klinikoan jasotako informazioaren kopiarik egin, horretarako erabilitako bidea edo formatua edozein izanik ere, betiere pazienteak idatziz baimendu ezean, edo, historia kliniko anonimoen kasuan, historia klinikoen erregistroaren arduradunak, tutoreak edo irakaskuntzako arduradunak proposatuta, berariaz baimendu ezean.

## **8. Pazienteen osasun-datuen konfidentziasunerako eskubidea.**

8.1 PAOLen 7.1 artikulua haxe xedatzen du: «pertsona guztien eskubidea da osasunari buruzko datuen konfidentziasuna bermatuta izatea eta legeak babesten duen aurretiko baimenik gabe ezinezkoa izatea datu horiek eskuratzea».

Eskubide hori aipatutako lege horren 2.7 artikuluan aurreikusitako konfidentzialtasun-/sekretu-betebeharrean gauzatzen da, horrek honakoa xedatzen baitu: «informazioa eta dokumentazio klinikoa egin edo hura lortzeko aukera duen pertsona behartuta dago dakiena isilean gordetzera».

8.2 Nola egoiliarrek hala ikasleen kolektiboan daudenek dute konfidentzialtasun-/sekretu-betebeharra, prestakuntza jasotzen ari diren osasun-zentroan daudenean ez ezik, baita hura bukatutakoan ere, eta pazientea hiltzean ere ez da betebehar hori desagertuko.

Konfidentzialtasun-betebeharra ez dagokie «datu intimoei» bakarrik (norberaren ideiei, balioei, sinesmenei, bizipenei eta abarrei buruzko psikologikoak barne), baizik eta baita pazientearen eta haren ingurunearen datu biografikoei ere (intimoak izan edo ez), baldin eta horrelakoak beste batzuek ezagutzeak tratamendua jasotzen ari den pertsonaren eskubideetan eragiten badu.

Konfidentzialtasun-/sekretu-betebeharra pazientearen historia klinikoan jasotako datuei ez ezik, hitzezko komunikazioan, grabazioetan edota bideoetan jasotako ere badagokie, bai eta era guztietako artxibo informatiko, elektronikoa, telematikoa edota erregistro publiko nahiz pribatuetan daudenei ere, desgaitasun-mailari eta informazio genetikoei buruzkoak barne.

Sekretu-betebeharra alde batera utzi beharko da, ordea, horri eustek eragindakoaren edo beste batzuen bizitzarako arriskua dakarrenean edo Osasun Publikoari kalte egiten dionean; horrelakoetan, dagokion laguntza-zerbitzu/-unitateko laguntza-arduradunei jakinaraziko zaie horren arabera jardun dezaten.

8.3 Xede horretarako, prestakuntza jasotzen ari diren pertsona guztiek konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatuko dute hura jasotzen ari diren osasun-zentroko egonaldia hastean (ikus eredu I. eta II. eranskinetan). Aipatutako konpromisoa 9. atalean aipatutako ikertzaile eta ikasleentzako erregistro-liburuan jasoko da, eta, prestakuntza hartzen ari diren espezialistei dagokienez, Irakaskuntza Batzordeak gordetzen dituen haien espediente pertsonaletan.

## 9. Azken xedapenak.

### 9.1 Osasun Zientziekin lotutako tituluetakoko ikasleen erregistroa.

9.1.1. Osasun-zentroek, aplikatu beharreko legeriaren babesean, irakaskuntza-erakundeekin irakaskuntza/ikerkuntzarako lankidetzako hitzarmenak/itunak sinatzen badituzte haien ikasleek praktikak egin ditzaten, horrelako erakundeek, ikasturtea hasi aurretik, maila bakoitzetik praktikak zentro horietan egin behar dituzten ikasleen zerrenda igorri beharko diote Zentroko Gerentziari, prestakuntza zer titulutan jasotzen ari diren, irakaskuntzako arduradunak zein egutegia eta praktiketara esku hartuko duten laguntza-unitateak zehaztuta.

9.1.2. Osasun-erakundeetako langileen zerbitzuek edo haien Gerentziak zehaztutako organoak «prestakuntza jasotzen ari diren ikasleen/ikertzaileen erregistro-liburu» bat izango dute. DBLOn datu pertsonalak jasotzen dituzten fitxategiak sortzeko ezarritako baldintzak beteko ditu liburu horrek. Erregistro horretan aipatutako datuak sartuko dituzte urtero, baita banakako konfidentzialtasun-konpromisoa sinatu izanaren oharra ere.

Aipatutako liburua, formatu digitalekoa, edozer laguntza-zerbitzuek eskuratu ahal izango du, ikasleak dena delako zentro eta zerbitzuan egoteko baimena duela egiaztatu ahal izan dezaten.

9.1.3 Aipatutako erregistro-liburu horretan ez dute inskribatu beharko egoitza-sistemaren bidezko prestakuntzan ari diren espezialisten nortasuna, horrelakoen kontrola, dagokion zentroaren erakunde titularrekin lan-kontratu baten bidez lotuta daudenez, lansariak ordaintzen dituen erakundeko langile-zerbitzuek egingo baitute, bai eta egoiliarra prestakuntza jasotzen ari den akreditatutako irakaskuntza-unitateak atxikita dauden irakaskuntza-batzordeek ere.

## 10. Jarraibide hau hedatzea.

10.1 Osasun-zentroetan prestakuntza jasotzen duten pertsonen emango zaie jarraibide hau horretan hasten diren unean.

10.2 Gomendagarria da osasun-zentroak sartu aurretik egiten duen informazio-saioan dokumentu honetan adierazitako alderdiak jorratzea, bestek beste.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 23an



M<sup>a</sup> Jesús Gemma Múgica Anduaga  
Osakidetzako zuzendari nagusia

**IKASLEENTZAKO KONFIDENTZIALTASUN-  
KONPROMISOA (I. eranskina. Protokoloa)**

.....

j a u n a / a n d r e a

( ..... N A N / I F Z / A I Z )

prestakuntzan ari da ikasle gisa .....osasun-  
zentroan, izaera honekin:

• **Unibertsitateko graduako ikaslea:**

- Medikuntza     Farmazia     Odontologia     Erizaintza
- Fisioterapia     Terapia okupazionala     Logopedia     Podologia
- Optika-optometria     Dietista-nutrizionista
- Unibertsitateko bestelako tituluak.

• **Graduatu ondoko unibertsitateko ikasleak/ikertzaileak:**

- Masterra     Doktoregoa     Berezko titulua     Ikertzailea

• **Osasunaren arloko lanbide-heziketako ikasleak:**

- Erdi-mailako teknikaria:.....
- Goi-mailako teknikaria:.....

**Hauxe adierazten du:**

1. Aitortzen du pazienteek nortasun, giza duintasun eta intimitatearekiko errespeturako eskubidea dutela, bai eta haien prozesuari lotutako informazio guztiaren konfidentzialtasunarekikoa ere.
  
2. Aitortzen du, halaber, pazienteen eskubidea dela osasunari buruzko datuen konfidentzialtasuna bermatua izatea eta aurretiko baimenik gabe ezinezkoa izatea datu horiek eskuratzea.

3. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluekin bat etorriz, aitortzen du sekretua gorde behar duela jarduera garatu bitartean eskuratzen duen informazioari dagokionez, eta prestakuntza-aldian eta hura amaitutakoan informazio/agiri oro erabili eta zaintzeko orduan ahalik eta kontu eta konfidentzialtasun handienaz jokatzeko konpromisoa hartuko du.
4. Aitortzen du ez dela egokia zentroko jardueraren barruan eskuratzen duen informazioa, osoa edo zati bat, transferitu, bikoiztu edo kopiatzea, eta hark emandako datuak ezin izango ditu erabili prestakuntza edo zentroko zuzendaritzak baimendutakoak ez diren bestelako xedeetarako.
5. Osasun Zientziekin lotutako ikasleek pazientearen intimitaterako eskubidea bermatu eta babesteko oinarrizko arauak zehazten dituen Jarraibidea ezagutzen eta onartzen du.
6. Jakin badaki bere erantzukizuna dela konfidentzialtasun-betebeharra betetzea, eta hori urratzeak ondorio penalak, diziplina-arlokoak edo baita zibilak ere izan ditzakeela.

Horregatik guztiagatik, erantzukizunpeko adierazpen honetako aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera jokatu du osasun-zentroan, eta haren bi ale sinatu ditu.

.....(e)n, 20...(e)ko .....aren .....(e)(a)n

- Interesdunarentzako alea       Osasun-zentroaren alea

EGOILIARRENTZAKO KONFIDENTZIALTASUN-  
KONPROMISOA (II. eranskina. Protokoloa)

.....  
j a u n a / a n d r e a  
( ..... N A N / I F Z / A I Z )  
prestakuntzan ari den egoiliarra da  
.....osasan-zentroan akreditatutako  
irakaskuntza-unitatean, izaera honekin:

- ..... espezialitateko egoiliarra,  
otsailaren 8ko 183/2008 EDko I. eranskinean jasota, honako titulu  
honekin:.....(*Medikuntza, Farmazia, Erizaintza,  
Psikologia, Biologia, etab.*)
- ..... espezialitateko txandakako egoiliarra,  
..... osasan-zentrotik datorrena (*zehazu  
jatorrizko zentroa*).
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak  
baimendutako prestakuntza-egonaldian dauden atzerriko osasan-  
profesionalak (*otsailaren 8ko 183/2008 EDren 21. art.*), espezialitate  
honetan:.....
- Praktiketako jardun profesionaleko aldiak dauden Europar  
Batasuneko osasan-profesionalak (azaroaren 8ko 1837/2008 EDren  
10. art.), espezialitate honetan:.....
- Praktiketako jardun profesionaleko aldi edo prestakuntzako aldi  
osagarrian dauden osasan-profesionalak (*apirilaren 16ko 459/2010  
EDren 8. art.*), espezialitate honetan:.....

**Hauxe adierazten du:**

- 1. Aitortzen du pazienteek nortasun, giza duintasun eta intimitatearekiko errespeturako eskubidea dutela, bai eta haien prozesuari lotutako informazio guztiaren konfidentziasunarekikoa ere.**
  
- 2. Aitortzen du, halaber, pazienteek eskubidea dutela beren osasunari buruzko datuen izaera konfidentziala errespetatua izateko, eta horrelakoak ezin dituela inork eskuratu aurretiaz baimenik jaso gabe. Gainera, zentroak norberak erabiltzeko bakarrik emandako sarbidegakoak edo pasahitzak beste batzuei ez emateko konpromisoa hartzen du.**
  
- 3. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikularekin bat etorriz, aitortzen du sekretu profesionala gorde behar duela laguntza-jarduera garatu bitartean eskuratzen duen informazioari dagokionez, eta prestakuntza-aldian eta hura amaitutakoan informazio/agiri oro erabili eta zaintzeko orduan ahalik eta kontu eta konfidentziasun handienaz jokatzeko konpromisoa hartuko du.**
  
- 4. Aitortzen du ez dela egokia zentroko jardueraren barruan eskuratzen duen informazioa, osoa edo zati bat, transferitu, bikoiztu edo kopiatzea, eta hark emandako datuak ezin izango ditu erabili prestakuntza eta pazienteari eman beharreko osasun-laguntza edo zentroko zuzendaritzak baimendutakoak ez diren bestelako xedeetarako.**



5. Osasun Zientzietako egoiliarrek pazientearen intimitaterako eskubidea bermatu eta babesteko oinarrizko arauak zehazten dituen Jarraibidea ezagutzen eta onartzen du.
  
6. Jakin badaki bere erantzukizuna dela konfidentzialtasun-betebeharra betetzea, eta hori urratzeak ondorio penalak, diziplina-arlokoak edo baita zibilak ere izan ditzakeela.

Horregatik guztiagatik, erantzukizunpeko adierazpen honetako aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera jokatu du osasun-zentroan, eta haren hiru ale sinatu ditu.

.....(e)n, 20...(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sin.:

Interesdunarentzako alea

Osasun-zentroaren alea  Irakaskuntza

Batzordearen alea